

munduak guztiontzat behar ko luke

AMFGYL

Ane Pir at a, Uxue,
Gor ka eta Oier
jolasean ar i dir a
par kean. Bot ilar en
jolasean ar i dir a,
muxuak banat zen.





AURREKO BATEAN
JOLAS GARAIAK ARITU GINEN
BOTILAREN JOLASEAN



TXANDA IRITSI ZEN ETA
BOTILAK IBAI SEINALATU ZIDAN.
MUTILA ZENEZ, ONDOAN ESERITA
ZUEN EIDERRI MUXU EMATEKO
AGINDU ZIDATEN.



BAINA NI EZ NENGOEN
ADOS. ALTXATU ETA IBARI
EMAN NION MUXU.



IBAI HASERRETU EGIN
ZEN ETA JOLASA BERTAN BEHERA
UTZI BEHAR IZAN GENUEN. ETA LAGUN
GUZTIEK OSO ARRARO BEGIRATU
ZIDATEN.



HEMEN ETA MUNDUKO
TOKI GUZTIAN MUXUA
NORBAIT MAITE DUZULA
ERAKUSTEKO MODUA DA.

EGIA
GALANTA
PATAKON!

INORK EZ LUKE
HASERRETU BEHAR
MUXU BATEN ERRUZ...



BAINA, OIER,
ZURI NESKAK
ALA MUTILAK
GUSTATZEN
ZAIKIZU?

NIK EZ DAKIT. NESKAK GUSTATZEN
ZAIKIT, ETA BAITA MUTILAK ERE.
ZERGATIK AUKERATU BEHAR DUT?

IBAI HASERRETU
EGINGO ZEN MUTILAK
GEHIAGO GUSTATZEN
ZAIKIZULA PENTSATU
ZUELAKO.

NIRE OSABA MIKELI XABIER
GUSTATZEN ZAIO. ELKAR MAITE DUTE ETA
EZKONDU EGIN DIRA. HASERRETU EGIN
BEHARKO NUKE? NORBAITI KALTE
EGITEN AL DIOTE?



OIERRI EMAN
BEHAR DIOT MUXU!

ANE ZU BETI JARTZEN
ZARA POZIK. ZURI BENETAN
GUSTATZEN ZAIZUNA MUXU
EMATEA DA!

ANE, ZURE
OSABARI MUTILAK
GEHIAGO GUSTATZEN
ZAIZKIO? NOLAKOA DA?

GORKA, ZE GAUZA ARRAROAK
GALDETZEN DITUZUN. BATZUEK BEGI
BELTZAK DITUZTE, BESTE BATZUK ILEGORRIAK
DIRA, BESTE BATZUK EZKERRAK DIRA...
BATZUEI MUTILAK GUSTATZEN ZAIZKIE
ETA BESTEEI, NESKAK.

NOLAKOA
IZANGO DA BA?
OSABA GUZTIAK
BEZALAKOA!

EDO BIAK. AMONAK ESATEN
DU MAITASUNA POLITEGIA ETA
ASKEEGIA DELA ARAU ZORROTZEN
AZPIAN EGOTEKO.



LOTSATUTA
SENTITZEN NAIZ,
EZ DAKIT EZER
MAITASUNAZ...
OIER, MUXU BAT
EMANGO DIZUT!!



**Gay, Lesbiana, Bisexual eta Transexualen
Gurasoen Elkarte**

Seme-alaba homosexual, bisexual eta transexualak dituzten aita eta ama talde bat da. Beren seme-alabak sendian babestuak eta jendartean onartuak izan daitezten lan egiten dute.

Guraso batek ez luke bere seme-alabaren giza-kalitatea zalantzan jarri behar lesbiana, gay, transexual edo bisexuala izateagatik.



Euskal Herrian 10.000 ume eta gazte-txo lesbiana, gay, transexual eta bisexual daude eta horietakoren bat zure seme-alaba izan daiteke.

Pentsatu al duzu noizbait?



Telefonoa: 688 811 735

E-posta: gurasoak.lgtb@gmail.com

www.ampgyl.org